



404 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko maiatzaren 4ean.

Oiartzun 2010 eta 2011 urtekarien maketazio eta inprenta-lanak egiteko kontratazio espedientea martxan jarri zela ikusirik, jendaurrean zabaldu gabeko negoziaziozko prozedura bidez.

Aipatu kontratazio espedientean parte hartzeko gonbidapena ondorengo enpresei bidali zitzaizela ikusirik: ANTZA, MICHELENA eta MCC GRAPHICS.

Kultura Batzordeak Oiartzun 2010 eta 2011 urtekarien maketazio eta inprenta-lanak behin behingoz esleitzeko egin duen proposamena ikusirik.

Kultura Batzordeak 2010eko maiatzaren 3an egindako bilkuran gai honi buruz luzatutako diktamena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki-Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, Oiartzun 2010 eta 2011 urtekarien maketazio eta inprenta-lanak egiteko kontratua ANTZA enpresari behin-behingoz esleitzea ERABAKI DUT urte bakoitzeko aurkezturiko 8528 €ko prezioa (B.E.Z. barne) onartuz, eta lanak uztailearen 19ko eguerdiko 12,00etarako egikaritze epearekin.

Era berean, 426,40 €ko behin betiko bermea jarri beharko du eta gizarte segurantza eta Hazienda ziurtagiriak aurkeztu, honetarako 15 egun balioduneko epea izango delarik behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hau igaro eta gero, 10 egun balioduneko epean behin betiko esleipena egingo da.

Ordainketa, udal aurrekontuko 1-08-01-226-451-11-08-2010 (A-1210/2010) diru atalaren kargura bideratuko da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jna.k agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

